100. zk.
2001eko apirila

# GEU

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria




# 100




Frankeo itundua 48/27

# ZORIONAK

Ateraiozu zukua Euskarari! • Eta bere freskotasunetik edan! •

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




albeniz Liburudenda

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# hilabete honetan

## ZORIONAK GUZTIOI! 100.era IRITSI GARA!!... EGIN DEZAGUN GUZTIOK BATERA

## 200.erako BIDEA!!!

**1992ko UZTAILA: GEU GASTEIZ ALDIZKARIAREN O. ALEA KALERA!:** "… gasteiztarrak gara (jaiotzez, lanbidez edota bokazioz, berdin dio!) eta euskaraz bizi nahi dugu. Horixe da kontua eta horixe izan da, azken batean, "EUSKARA-GASTEIZ". Geroa Elkarrekin lantzen" proiektuaren ingurura ekarri gaituena. Eta erantsi beharrik ez dago, horrexegatik eta horrexetarako plazaratu nahi izan dugu eskuartean daukazun aldizkari hau… Argi utzi nahi dugu, beraz, euskara indartu eta zabaltzearekin batera, Gasteizko gizarte-bizitza, bertako gora-beherak, arazoak, gertaerak, etab. jasotzea dela gure asmoa…".

**2001eko APIRILA: 100. ALEA KALEAN!** ESKERRIK ASKO PROIEKTUAREKIN BAT EGITEN DUZUEN GUZIOI, ETA URTE ASKOTARAKO! Bide luzea eta zaila orain artekoa, BAINA HASIERA BESTERIK EZ DA, EZTA? ETA GOGOAN IZAN **ETORKIZUNA EUSKARAZ DATORRELA!... BERAZ, ATERAIOZU ZUKUA EUSKARARI ETA BERE FRESKOTASUNETIK EDAN!!!**

Ateraiozu zukua Euskarari! • Eta bere freskotasunetik edan • GEU

**ETA EZ AHAZTU: APIRILAK 7. APIRILAK 7. APIRILAK 7. APIRILAK 7. APIRILAK 7…** EA ZER DAGOEN??? ***"ATERAIOZU ZUKUA" EGUNA***:
• **GOIZEZ**, 12:00etatik aurrera, ZENTROTIK ETA ALDE ZAHARRETIK (HAUR ETA HELDUENTZAT): SEBASTOPOLEKO TITIRITEROEN ZIRKO KALEJIRA, JOLASAK FARIÑAn KULKI TALDEAREKIN, INFORMAZIO GUNEA…
• ETA **GAUEZ**: JAI SORPRESA, "ZUKU FESTA": KESENGUE-KESENGUE taldearen KONTZERTUA (musika afro-karibetarra), CUBO Dj-a, MUSIKA eta sorpresa ugari… GAZTETXEAN, 22:00etatik aurrera… HURBIL ZAITEZ!!!

******HELBURUA EUSKARARI ZUKUA ATERATZEA DENEZ… SARTU AHAL IZATEKO ZERBAIT LARANJA EKARRI BEHAR DUZUE! EZ AHANTZI, EHHH???***




## *adi* korrikari!!!

**APIRILAK 1 eta 3… ARABAN DAGO ETA:**
Artziniega, Arespalditza, Laudio, Areta / Uribarri-Ganboa, Durana, Betoñu, Gardelegi, S. Bixentexo, Urizaharra, Bastida, Samaniego, Eltziego, Biasteri, Oion, Ekora, Bernedo, Kanpetzu, Agurain eta Araia.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## termometroa



• BERTSOLARITZARI OMENALDIA. KORRIKA 12... **"HITZAK EGIN GAITU"** liburuska: 200 urteko bertsolaritzaren agerpen bat.

• KORRIKA KULTURALAren **EGITARAU OPAROA**: eskaintza zabala benetan!

• **KORRIKA DENDA ZABALIK:** Korrika denda zabalik dago jadanik Gasteizko Aiztogile kalean (Bagare-ren parean). Bertan **korrika**ko materiala eros daiteke eta tonbola izugarri batean parte hartzeko parada dago. Tonbolan mota guztietako sariak daude, horien artean El Portalon jatetxean afari eder bat.

**Eta aurrematrikulen datuak (101. alean datu zehatzak): A eredua, gero eta beherago, eta nabarmena da D ereduaren aldeko apustua oro har. B-a mantentzen da.**

**EZIN IZAN DIRA** "ARABAKO EUSKAL HOTSAK-ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA" ERAKUSKETAREN **GASTU GUZTIAK KUBRITU**. OROTARA 1.000.000 FALTA DUGU. **KOLABORATU NAHI BADUZU...:**

# 3035 0056 43 056.0.03692.5

**(EUSKADIKO KUTXA)**

Arabako Euskal Hotsak erakusketak agur esan dio Gasteizi, baina kaixo LAUDIOri (martxoak 28-apirilak 11). Ondoren, Agurain, Maestu, Artziniega, Aramaio, Izarra, Gopegi, Errioxa...

## zenbakia

...eta... **100**




***Zorionak!!!***

GEU Elkartearen ekimenez egina
**Erredakzioa**: Pedro Asua, 2 - 3.a • **Tfnoa. eta Faxa:** 945 22 21 53 • **e-mail:** geugaste@grn.es

**Zuzendaria:** Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-batzordea**: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. eta DAV. **Testuen orrazketa:** E.B. **Maketa:** DOAL. **Komikia eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Agurtzane Villate. **Kolaboratzaileak:** Amaia Zaldua, Maider Perez eta Iñaki Zorrakin. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

**Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500 · LG: VI-582/92 ·ISSN: 1133-0988 ·**

*Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.*

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
FUNDAZIOA GRUPO EROSKI
CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA
Arabako Foru Aldundia



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

ikusi-makusi




Martxoak 3 gogoan… Manifestazio jendetsua.

araba bixotzian Agurtzane Villate

gastelZkinak






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ZORIONAK GEU!

**ZORIONAK GEU! Ez da erronka erraza izan, baina azkenean "Geu" (Gasteiz) aldizkaria 100. alera iritsi da. Beraz, zorionez, egindako lan gogorrak merezitako saria jaso du. Honez gain, esan beharra dago, pixkanaka-pixkanaka aldizkaria hedatuz doala.**

**Dena den, zein da kaleko jendeak honen inguruan duen iritzia? Besterik gabe, ikus dezagun!**

**1) Ezagutzen al duzu "Geu" aldizkaria?**

**2) Zer deritzozu proiektuari?**



**Idoia (Langilea)**
1.- Ez, aldizkari euskaldun batzuk ezagutu arren, ez dut honen berri.
2.- Ondo iruditzen zait, euskaraz aldizkari gutxi daude eta.



**Ruben (Lan-harremanetako ikaslea)**
1.- Ez, ez nuen ezagutzen.
2.- Ondo iruditzen zait horrelako aldizkariak egotea.



**Hermagoras (Ikaslea)**
1.- Bai, aspalditik ezagutzen dut.
2.- Oso ondo. Gainera, gaur egungo "Geu " aldizkaria lehen kaleratzen zena baino dinamikoagoa eta errazagoa da irakurtzeko.



**Alberto (Ikaslea)**
1.- Ez, ez dut aldizkari honen berri.
Ondo iruditzen zait. Nire ustez mota guztietako aldizkariak egon behar dira.



**Gaizka (Psikologoa)**
1.- Bai, ezagutzen dut.
2.- Oso ondo deritzot. Izan ere, zaila da aldizkari euskaldunak topatzea.



**Eva Guevara (Administraria)**
1.- Ez, ez dut ezagutzen.
2.- Nire ustetan, gaztelaniaz eta euskaraz izan beharko litzateke, nik ez baitut euskara ezagutzen.

## naturaren isladak

ARABAKO NATUR INSTITUTUA




*Iñaki Zorrakin*

**Erbia *(Lepus europaeus).***



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**ELKARLANEAN ARGITALETXEAK AURKEZTEN DU...**

ELKARLANEAN

## KORAPILOAK.
## Jasone Osoro
### (Martxoko galderaren erantzuna)




Zer da guk nahi gabe ere bizimodua korapilatzen digun sentimendua? Zein da pertsonen arteko katramila gehien sortzen dituen arrazoia? Zer da gorputzak lotzera bultzatzen gaituen zirrara goxoa? Deituiozu maitasuna nahi baduzu, deituiozu sexua bestela: izenak izen, horixe duzu, nonahi eta noiznahi, gure poz urrien eta buruhauste ugarien iturri nagusia.

Hamazazpi ipuin eta beste horrenbeste poemaz osatutako liburua da Korapiloak; bertako pertsonaiak ere istorio batetik bestera igarotzen dira, haien arteko korapiloak sortuz eta kontakizuna aberastuz, eta irakurlearen esku geratuko da, azkenik, protagonisten arteko loturak argitzea eta maitasunaren puzzlea piezaz pieza osatzea.

Egunerokotasun eta absurduaren artean mugitzen da Jasone Osoro liburu berri honetan, izenik ez duen hiri bateko jende anonimoaren geletan sartuz eta haien sekretuak argituz, irakurlearen begi harrituen aurrean. Ispiluaren bestaldean gu geu gaude ordea, norberaren bizitza ere korapiloz betetako soka luzea baita: askatzen den korapilo bakoitzeko biluziago geratzen gara, baina hurbilago dugu, era berean, desira ezkutuen ametsa.

**MARTXOKO LEHIAKETAN EZ DA IRABAZLERIK EGON; BERAZ, APIRILEAN, 4 LIBURU 2 HARPIDEDUNENTZAT (BINA)! GALDERA HONAKOA DA:**

**• ZEIN DA GEU ALDIZKARIAK, 100. ALEA DELA ETA, APIRILEAN KALERATU DUEN LIBURUAREN IZENBURUA?**

**Bidalguzue erantzuna. Pedro Asua kalea 2 - 3.a - 01008 Gasteiz edo: geugaste@grn.es**

albeniz

**Liburudenda**-ren eskutik

Eskuetan duzun ale honetatik aurrera eta ireki berria den txoko honetan kulturarekin zer ikusia duten ideia zehatzak proposatuko dizkizuegu. Kulturaren gainean iritzi asko jasoko ditugu dudarik gabe. Euskal kultura zer, nolakoa eta zertan datzan une honetan interesgarria daiteke. Eta honekin batera, ideiak aurrera eramateko, tresnak eta baliabideak derrigorrezkoak zaizkigu.

Zerbait hasi da mugitzen Gasteizen.

Zerbait hasi da aldatzen.

Zerbait hasi da.

## JEAN FRANÇOIS SAURÉ
### ARGITARATZAILEAK AURKEZTEN DU...







## "GAZTE KONTUAK"

## "TXEROKIREN TXORAKERIAK"

GEU ALDIZKARIA eta JEAN FRANÇOIS SAURÉ argitaratzailearen artean kaleratutako komiki liburua, Geu aldizkarian kolaboratzaile dugun Iñigo Sarasola komikigileak sortutako Txeroki pertsonajearen omenez (ia 100 aletan gure artean egon dena). Txerokiri agur, edota beste bat arte esateko modurik dotoreena, ezta?

### *... ETA 100. ALEA DELA ETA, "ZOZKETA SORPRESAN"

**IRABAZLEAK...:**

***"GAZTE KONTUAK" (5)***: Jose Luis Alesanco Ramirez, Gudiker Beaskoa Belaustegi, Ainhoa Larreina Fdz. de Lezeta, Mª Carmen Rascon, Rafael Herreros.

***"TXEROKIREN TXORAKERIAK" (5):*** Iñigo Ruiz de Sabando, Amaia Otsoa Herran, Jabier Masa Espina, Izotz Argote, Arantza Eizagirre.

***"KONTATZEKE LAGATA"*** (aurreko alean aurkeztua) (5): Xabier Diaz de Zerio, Rakel Herrera Nogales, Ana Ramirez de Okariz, Reme Vaquerizo, Alizia&Bibi Saenz de Viteri.

## *ZORIONAK!*

***ALDIZKARI BERRI BAT GASTEIZEN: LA BOTICA. LITERATURA ALDIZKARIA**




1. zka (2001eko otsaila). 300 pta.

*Kioskoetan salgai*



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 1.- 1992ko abendua




Mila kilometro egiteko lehenengo urratsa ematea beharrezkoa dela dio Txinako esaera zahar batek; 100. alera iristeko lehenengoa argitaratzeko erabakia hartu behar da eta GEU elkarteak 1992ko abenduan kaleratu zuen 1. alea. Ruper Ordorikarekin berbetan abiatu zen Endrike Knörr-en hitzaurrea izan zuen lehen alea. "Ruper Ordorika eta Mugalaris" diskoa eta "Emak bakia baita" proiektuaren berri eman zuen aspaldian 'gasteiztartua' dugun abeslariak. Duela zortzi (...) urteko (9.erako bidean) zenbaki horretan aldizkariak ale gehienetan izan dituen ezaugarriak erakutsi zituen: Kalea mintzo atala, haurrentzako saila, kiroletarako tartea...

## 2.- 1993ko urtarrila

Gasteizko suhiltzaileek beren lanaren berri eman ziguten. Aleko erreportaje nagusiak Tinduf-eko errefuxiatu eremua helmuga zuen Sahara-ranzko III. Karabana aurkeztu zigun. Zortzi (...) urte eta ehun ale geroago karabanak beharrezkoak dira oraindik; gauza batzuk ez dira horrenbeste aldatu...




## 3.- 1993ko otsaila




Kazetari eta kolaboratzaile taldea finkatzen hasi zen eta dozenaka aletan lan egin duten zenbait lagunek 93ko otsailean idatzi zuten aldizkarian estreinakoz. Ordutik hona guztion ahotan egon diren bi gasteiztarri, Juanma Bajo Ulloa zine zuzendaria eta Martin Fiz atleta, elkarrizketa izan zen horien lehenengo lanetako bat.

## 4.- 1993ko martxoa




Eusebio Osari omenaldia izan zen 4. alea. Zortzi (...) urtetan zehar lagun askori agur esan behar izan diogu eta Bergaran jaiotako euskaltzalea lehena izan zen. AEKren sortzaileetakoa, ikastolen munduan murgildua, idazle eta irakaslea, Euskaldunon Egunkaria martxan jarri zuen ekimenaren partaide, bertsozalea, GEUko kidea,... Horixe eta askoz gehiago zen Eusebio Osa.

## 5.- 1993ko apirila

Korrika irudietan, eta horretaz gain, ikus-entzunezkoei buruzko masterra aztertu genuen eta lehen mailan aritzen ziren bi futbolari gasteiztarrekin hitz egin: Ernesto Valverde eta Carlos Martinez. Inbidiaz begiratzen zuen orduan Gasteizek Donostia eta Bilbora futbol kontuetan. Beste garai batzuk ziren!






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 6.- 1993ko maiatza




Arabako Bertsolari Txapelketako txapela lehen aldiz jantzi zuen Zigor Enbeita gazte-gazte bat agertzen zaigu argazkietan. Rikardo Arregi olerkigileak "Hari hauskorrak" bere liburua aurkeztu zigun eta Pedro Añarbe triatroilaria ezagutzeko aukera eman zigun kiroletako orriak.

## 7.-1993ko ekaina




Laudion ospatu zen Araba Euskaraz-ek "etorkizuna euskaraz" zetorrela aurreratu zigun. Xirrika, helduentzako antzerki fresko eta gaztea egiten zuten neska koadrila ezagutu genuen eta Nandus-ek Houston-Buenos Aires bidea bizikletaz nola egin zuen azaldu zigun.
Kirol sailean Juan Arregi zenak bere ametsa Alaves taldea lehen mailan ikustea zela aitortu zuen; lortu eta gutxira zendu zen Arregi jauna.

## 8.- 1993ko uztaila

Alavesek (beste urte batez) Bigarren B mailan jarraituko zuela zioen kiroletako orriak. Desgustua pasatzeko eta udari begira, bidaiatzeko zenbait aukera aurkeztu zigun erreportaje batek eta, azkenik, egun EHUko Arabako campuseko errektoreordea den Antonio Rivera ezagutu genuen; hori bai, gazteago eta... iraultzaileago? Eta jazz-a.




## 9.- 1993ko abuztua

Portada klasiko bat, urtez urte errepikatzera kondenatuak gaudena (zorionez): Gasteizko jaiak. Andre Maria Zuriaren jaien inguruko historian arakatu nahi izan zuen GEUk; eta horrez gain, egitaraua eman, blusen koadrilari errepasoa, Iñaki Landa eta Iker Ibañez de Garaio, bi Zeledonekin hitz egin,...







## 10.- 1993ko urria

Juanjo Mena musika zuzendari gazteari elkarrizketa egin zion GEUk, ibilbide arrakastatsu baten hasieran zegoenean. Hastear zeuden bi zita garrantzitsuren berri ere eman genuen: Gasteizko Antzerki jaialdia eta saskibaloi denboraldia.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 11.- 1993ko azaroa




Estibalitz monastegira hurbildu eta benediktiar guztiak euskaldun zirela jakin genuen. Ana Lucia Billate eta Txema Blasco aktoreek beren azken lanen berri eman ziguten eta Antonio Mirandari agur esan behar izan genion... Abetxukoko lagunekin mendira joaten hasi zen mutila Everest-en gelditu zitzaigun. Adiorik ez!

## 13.- 1993ko urtarrila

Kolorezko gure lehen portada (eta bakarra momentuz) 1993ko Gabonetarako atera genuen. Gasteizko gizon-emakume ospetsuenengana jo genuen urteko azken jaiak nola igarotzen dituzten galdetzera, kotiloiak ugaltzen ari zirela jakin genuen, Gabon Zaharrean ez aspertzeko alternatiben bila joan ginen,...




## 12.- 1993ko abendua




Arabako euskaltzaleon erreferentea izandako Andoni Urrestarazu, Umandi, hil egin zen 91 urte zituela. Bere bizitzako azken lana izandako Euskal Gogo-Iztegia iaz argitaratu zen, Maria Teresa arrebaren indar eta kemenari esker. Irakasle belaunaldi oso baten euskara irakaslea izan zen Umandi eta egun Araban dugun hazia berari zor diogu neurri handi batean. 1. urtemuga.

## 14.- 1994ko otsaila




Garai ezberdinetan hainbat urtetan gurekin egondako "Euskaltasunean lagun" sailari hasiera eman zion Miel Anjel Elustondok Blanca Fdz. de Quincoces-i egindako elkarrizketarekin. Xabier Santxotena sukaldari eta eskultoreak bere etxean hartu gintuen bere lanen berri emateko, eta neguko kirol nagusienari buruz, eskiari buruz, zertxobait ikasi genuen.

## 15.- 1994ko martxoa

Gasteiztarrek Manel Comasen garaiko Tau Baskoniari egindako ongi etorri beroa hartu zuen azalak. Europako Kopako finalera iritsi zirela ospatu zuen Gasteizek. Honez gain, Arabako euskal prentsaren aitzindariak gogora ekarri nahi izan genituen: Umandi, Luis Elizalde, Odon Apraiz,...






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




## 16.- 1994ko apirila

Txirrindularitza: Euskal Herriko itzulia berriro Gasteizen. "Historia de un hombre malo" film laburraren egilearengana jo genuen, Myriam Balleste-rosengana, Amaia Vazquez sexologoarekin hizketaldi interesgarria izan genuen eta "Zerutik lurrari begira" astrologia atala inauguratu zuen Iñaki Gauna kolaboratzaileak.

## 17.- 1994ko maiatza

Luis Zulaika intsumitu gasteiztarraren gutun batek zabaldu zuen GEU GASTEIZen 17. alea. Gasteizko Bertso Eskola ezagutu nahi izan genuen, Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama V. Bertso Txapelketaren aitzakian, eta hirian tatuajeak egiten zituztenengana jo genuen.




## 19.- 1994ko uztaila

Udan inoiz baino lan gehiago izaten zuten Joselu Anaiak taldekoengana jo genuen eta Jazzaldiaren egitarauari errepasoa eman genion. Udako jaien inguruan eraso sexual gehiago direla medio, autodefentsa ikastaroek eskaintzen dutenaren berri emateko eskatu genien antolatzaileei. "Auzoz auzo" sailari hasiera eman zitzaion.







## 18.- 1994ko ekaina

Araba Euskaraz Lapuebla de Labarkan. "Non eta mugan" izan zen inoiz baino jende gehiago bildu zuen Arabako ikastolen jaiaren leloa. Bestetik ere, "Amets" taldekoekin hitz egitera joan ginen, beren 25. urteurrena ospatzeko CD bat plazaratu zutelako eta udako oporretara begira, elkartasun brigadek eskaintzen zituzten aukerak aztertu genituen.

## 20.- 1994ko abuztua

Gasteizko jaiak berriro ere, eta gaitz erdi! Jaien inguruko alea izan zen hau: Aihotz plazaren egitarau euskalduna, "blusak",... Eta jaien gainean egoten den eztabaidarik klasikoenari leku utzi genion: La Peña Taurina, Rosa Letamendia eta Eguzkikoekin hitz egin eta hausnarketarako deia egin genuen. Ateratako ondorioak: Zezenak...? Behiekin!!!






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




## 21.- 1994ko iraila

Ale berezi xamarra kaleratu da batzuetan udako oporretatik bueltan. Oporren buelta atseginagoa izateko Patxi Zubizarreta idazleak ipuin bat "oparitu" zigun urte pare batez; ale honetakoak "22 ohar ipuin baterako" izenburua zuen. Okoa kultur taldekoekin eta Josean Kerejetarekin ere mintzatu ginen.

## 22.- 1994ko urria

Martin Fiz-ek etorkizunerako asmoen berri eman zigun, Gasteizen izandako Polizi Literaturaren II. ihardunaldien helburuei buruzko erreportajea idatzi eta esperantoa hobeto ezagutzen saiatu ginen. "Bakoitzak berea eta esperantoa denontzat" esan ziguten Gasteizko taldekoek.







## 23.- 1994ko azaroa

Hiru gai nagusi ale honetan, besteak beste: Karta museo berria, Eric Bourdonen kontzertua -Newcastle-go musikariak indarrez zegoela erakutsi zuen Gasteizen-, eta Sabino Padilla, goi mailako kirolarien mediku famatu eta polemikoarekin elkarrizketa.

## 24.- 1994ko abendua




Urteroko euskal kulturaren zita nagusia den Durangoko azoka literaturara hurbiltzeko aitzakia moduan erabili zuen GEUk eta Gerardo Markuleta eta Patxi Zubizarreta idazleengana jo genuen beren azkenengo lanei buruz galdetzeko. Ludotekek euskaraz eskaintzen duten zerbitzua ezagutzera ere jo genuen. 2. urtemuga.

## 25.- 1995eko urtarrila




25. alea ospatzeko aldizkariko orduko egileak bihurtu ginen azaleko protagonista. Zein urrun zegoen orduan 100.a! Barruan, Gabonetako Gasteizko ohitura zaharrei buruzko erreportajea, Perasovic Baskoniako jokalariari elkarrizketa eta esparru desberdinetan aritutako bi emakume ezagutu genituen: Oihane Perea bertsolaria eta Arantxa Ibarrondo areto-futboleko jokalaria.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




## 26.- 1995eko otsaila

Iñaki Gauna kolaboratzaileak "nolako idazkera, halako izaera" izeneko atalari hasiera eman zion Ruper Ordorikaren idazkera eta nortasuna aztertzen, Alaves taldeko izar berriak ezagutzera jo genuen, eta euskarak Araban duen babes falta salatzeko Biltzar Nagusietan larru gorritan jarri lagunen aldarrikapenekin bat egin genuen.

## 27.- 1995eko martxoa




Azalean eta barruan gai bat nagusi: Euskara. Portadan, Korrika 9. Barruko orrialdeetan zenbait elkarteren arteko harremanak euskara hutsez bideratzeko kanpainaren berri eman zigun Xabier Galarragak. Gainera, "Tolerantziaren izenean Araban elebitasunaren alde" manifestuaren berri ere eman genuen. Kiroletako gaia: Baskonia Europako Koparen finalera iritsi zela.




## 28.- 1995eko apirila

Azala intsumisioaren aldeko mugimenduari eman genion; barruan, Luis Zulaika intsumituak kartzelan bizitakoak kontatu zizkigun. "Ipar haizearen erronka" marrazki bizidunen egilea ezagutu genuen, Maite Ruiz de Austri, eta Juan Carlos Najera kirolari-abenturazaleak Alaskara egin behar zuen bidaia azaldu zigun. Garai honetan hasi ginen "Sukalde txokotik" sailean hiriko jatetxeei errepasoa ematen.

## 29.- 1995eko maiatza




Rikardo Gonzalez de Duranak Arabako bertsolarien txapela eskuratu zuen. Leizarragaren biblia Euskal Herrira itzuli zen garai horretan, Nafarroako Aurrezki Kutxak Londresen erosi zuenean, eta lanak duen balio handia azaldu zigun Sancho El Sabio Fundazioko arduradunak.




## 30.- 1995eko ekaina

Arabako ikastolen jaiarekin urteroko zita. "Euskara, ikastolak... baietz atera!" izan zen urte horretako leloa.
Ikastolatik unibertsitaterako jauzia egin genuen Nikolas Xamardo irakaslearekin hitz egiteko. Xamardo, Galizian sortutako gasteiztarra, irakaslego propioaren aldeko borrokan murgilduta zegoen orduan.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




## 31.- 1995eko uztaila

Gai nagusi bi: kultura eta kirola. Kulturan Joxean Sagastizabal, "Kutsidazu bidea, Ixabel" euskal best-selleraren egile atsegin eta interesgarriarekin hitz egin genuen. Kiroletan egun oso urrun geratzen zaizkigun bi berri izan genituen: batetik, Juanito Oiarzabalek 14 zortzimilakoak igo nahi zituela esan zigun (...geroztik entzun al dugu horri buruz ezer?), eta, bestetik, Alaves-ek 2. B mailari agur esaten ziola.




## 33.- 1995eko iraila

Arabar futbolak uzta ona bildu zuen urte horretan, Alaves bigarren mailara igo zen denboraldi berean Aurrerak bigarren B-rako jauzia eman zuen. Aurreko urtean bezala Patxi Zubiza-rretak opari bat egin zigun oporren buelta horren gogorra ez izateko: "Etxerik gabeko bikote baten egunkaria" kontaketa laburra.

## 32.- 1995eko abuztua

Jaiak. Txosnak, blusak, Aihotz plaza, herri kirolak, musika,... Eta horretaz gain, Apotheke musika talde gasteiztarraren berri izan eta Indarra dantza taldearen ibilbidea gogoratu genuen.







## 34.- 1995eko urria

Gai asko: Antzerki jaialdiaren egitaraua, Bertso eskolaren kurtso berriaren hastapenak, Mikel Garmendia idazle eta itzultzailearen "Belle, Landetako sirena" ipuinaren aurkezpena, Badaiotz kirol elkarteko soka-tira neska taldea eta Alaveseko jokalari guztiak banan banan.




## 35.- 1995eko azaroa

Aldizkariaren lehen itxuraldaketa (kolore bat azalerako, logo berria). Arabako II. Trikitilari egunak, Mikelin Abetxukoko jaialdiak eta Txema Ramirez kazetari eta irakaslearen liburuak estreinatu zuten gure irudi aldaketa. Tania Lamarca, Estibaliz Martinez eta Almudena Cid-ek Atlantara urrearen bila zihoazela esan ziguten.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




## 36.- 1995eko abendua

Gure 3. urteurrena ospatu genuen aldizkari honekin. GEU elkartearen ekimenez Gasteiza etorritako "Mintzalaguna" proiektua aurkeztu genuen. Musika alorrean, Karlos Subijanak Zuberoako doinu goxoak ekarri zizkigun eta Garik bakarkako lehen lana aurkeztu.




## 37.- 1996ko urtarrila

"Gracias por su visita-Eskerrik asko zure ikuspena", "Precaución! Zona eskolar intensiva-Kontuz eskolalde arriskutsua!"... Komentariorik gabe. Exkixu taldeak bere bigarren lanaren ezaugarriak azaldu zizkigun eta Mikel Barcena eskialari gasteiztarra ezagutu genuen.




## 39.- 1996ko martxoa

Euskararen Udal Ordenantzarekin gora eta behera zebiltzan talde euskaltzaleak; gaiak buelta asko eman zituen. Kultur arloan Natxo Etxebarrieta, Cicatriz taldeko kidearen heriotza izan zen berri nagusia. 96ko errege egunaren bezperan zendu zen Natxo, euskal punka umezurtz utziz.
Molinillo portadan.




## 38.- 1996ko otsaila

Nandus gurean berriro ere, oraingoan bidaia luzeago baten berri emateko, Alaskatik Tierra del Fuegorainokoa. Fredi Martin, EHEko kideak gure hizkuntza eskubideak errespetarazi behar ditugula aldarrikatu zuen. Berdantzaki, Gasteizen euskal dantza berritzeko sortutako taldea ezagutzera jo genuen.




## 40.- 1996ko apirila

Iñaki Nafarrate Aramaioko alkateak herria UEMAn, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, sartu zela kontatu zigun. Canal Gasteiz eta Tele Vitoria telebista kateen arteko "guda katodikoa"k eta ONCE futbol talderari buruzko erreportajeak osotu zuten aldizkaria.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




## 41.- 1996ko maiatza

Elkartasun bidaietara joateko deia zabaldu zuten Gasteizko Askapenak eta Komite Internazionalistak. Martin Fiz-ek maratoi bakoitzean hiruzpalau kilo eta pare bat zentimetro galtzen dituela aitortu zuen.

## 42.- 1996ko ekaina

Araba Euskaraz berriro ere. Amurrioko antolatzaileek "Euskara guztiz ona" dela aldarrikatu zuten. Mintzalaguna programa azkenean martxan jarri egin zuen GEU elkarteak. Euskal Kantu Txapelketaren finala Gasteizen izan zen. Grafiteroen mundura hurbiltzeko saiakera bat egin zuen "Hormetako artistak" erreportajeak.







## 43.- 1996ko uztaila

Araba Irratia egitasmoa aurkeztu zen. Gasteizen notaritza lanak euskaraz egiten dituen notarioarengana hurbildu ginen, zenbait tramite gure hizkuntzan egitea posible den jakiteko, eta agentzia matrimonialetara, benetako zeregina argitu eta topikoak baztertzeko. Alavesek hauteskunde garaia zuen. Zeinek irabazi ote zuen, Gonzalo Antonek ala Gregorio Rojok? Eta abar...

## 44.- 1996ko abuztua

Jaiak, jaiak eta jaiak. Jaietan lan egiten dutenak, Aihotz plazako euskal gunea, herri kirolak,...







## 45.- 1996ko iraila

Anahi Arbaizar Estatu mailan marka guztiak hautsi zituen ur eskiatzaile gasteiztarra ezagutu eta Añana euskaraz ekimenaren berri izan genuen. Patxi Zubizarretaren bideari jarraituz, Bernardo Atxagak "Lezio berri bat ostrukari buruz" ipuina eskaini zigun iraileko ale honetan argitaratzeko.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 46.- 1996ko urria

Jon Gabella, Gorka Aginagalde eta Iñaki Rodaballok antzeztutako Sobradun taldeko "30 millones de gilipollas" lana eta Euskarri kirol taldea izan ziren Ainhoa Iriondori agur esan genion alearen protagonistak. Ainhoaren lagunek "zergatik joan zitzaigun" galdetu zuten publikatutako testuan. Zergatik?




## 47.- 1996ko azaroa

EHEko kideekin elkarrizketa. Tamalez, beti dago Euskal Herrian Euskaraz-koekin hitz egiteko arrazoiren bat. Amilamia kultura aldizkaria, Comtra-culture zirkuito alternatiboa eta Javier Mauleon txirrindulariari buruzko erreportajeak. Eta harpidetza kanpainaren aurkezpena. Ordura arte doan zena kobratzen hasiko ginela iragarri genizuen beharrak aginduta.







## 48.- 1996ko abendua

Klase partikularrak euskaraz ematen dituzten akademien berri eman zien GEU Gasteiz-ek ikasle eta gurasoei. Musika alorrean, The Allnighters izan zen protagonista "Keep on, keepen´ on" bere bigarren diskoaren aurkezpena zela eta. Gure 4. urtemuga.

## 49.- 1997ko urtarrila

Azaletik begira dugu aurtengoak baino eztabaida gutxiago sortu baina azken finean patu triste bera izan zuen San Anton txerriak. Barruko orrialdeetan, Euskararen Udal Ordenantzak onartu gabe zeudela eta manifestaldirako deia bota zuten talde euskaltzaleek. La Polla taldeak "Carne para la picadora" diskoa aurkeztu zigun.







## 50.- 1997ko otsaila

Bigarren itxuraldaketa. 50. alera iristeak balantze bat egitea eskatzen zuela iruditu zitzaigun. Ordura arteko garapena gogoratu genuen, baina orduan gai nagusi batek kezkatzen zuen aldizkariko lan taldea: ditxosozko harpidetzak. Kanpainaren berri eman genuen, zenbat lortu, zer-nolako harrera eman zeniguten,... Baina, batez ere, eskerrak eman genizkizuen, zuei esker 100. alera iritsiko ginela ziur geundelako (edo ez horren ziur?).



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




## 51.- 1997ko martxoa

Korrika berriro ere. Korrika kulturala eta Mikel Telleria abeslariarekin solasaldia. Intsumituen elkarteek kode penal berria zela eta estrategia aldatzera behartuta zeudela kontatu ziguten, eta Martxoaren 8aren inguruko historia egin genuen: nondik datorren, zergatik den oraindik beharrezkoa (egun ere bai, jakina)... S.A. taldeak "Diversiones" CDa aurkeztu zuen.

## 53.- 1997ko maiatza




Hiru elkarrizketa: Mikel Mintegi, orduko Kultura diputatuarekin; Arturo Igoroin, Sibori, Alaveseko jokalari ohiarekin; eta Triku, Bizkar Hezurra taldeko kidearekin. Gainera, sindikatuengana jo genuen Maiatzaren 1ren aitzakian beren aldarrikapenen berri izateko. Azkenik, Tropikoetatik Siberia-Gasteiza erakusketa.




## 52.- 1997ko apirila

Saioa del Palacio, oso ondo idazten duen neska gaztea izan zen ale honetako protagonista nagusia. "Itsasoko azken olatua" lanarekin Ipuin Kontaketa Laburren 3. Sarian txapela irabazi zuen Saioak. Gurekin elkarrizketa egiteaz gain, bere ipuina eman zigun aldizkarian argitaratzeko.

## 54.- 1997ko ekaina

Aurrera, Gasteizko bigarren futbol taldeari arreta berezia jarri genion atal honetan, Emilio Ubis, lehendakaria, Blas Ziarreta, entrenatzailea eta Carlos Lasheras jokalariari elkarrizketak eginez. Horretaz gain, energia berriei buruzko erreportajea izan genuen haize errotei eginiko begirada bereziarekin.




## 55.- 1997ko uztaila




Araba Euskaraz argazkietan. Euskararekin jarraituz, euskalduntze ahaleginetan ari diren guraso taldeen jarduerari erreparatu genion. Bestaldetik, Alde Zaharrean aurkitutako Erdi Aroko aztarnen inguruko lana atera genuen, eta, azkenik, azala gitarrajole mitiko bati eman genion, jazzaldian jo zuen Eric Claptoni.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 56.- 1997ko abuztua

Jaietako aldizkari "originala": Aihotz plazako ekitaldiak, txosnen gunea,... Betikoaz gain, Jose Luis Isasi, Enrique Oribe eta Iñaki Landa, Zeledon guztiak, elkartu genituen beraiekin solasaldi bat izateko.
"Gasteiztar guztiak gara Zeledon" esan ziguten.







## 57.- 1997ko iraila

Urtero Eguzkik antolatzen duen Zadorrako jaitsieraren aitzakiaz Gasteizko ibaiaren osasunari buruz galdetu genion talde ekologistari: "inoiz baino okerrago" izan zen erantzuna. Gainera, Arabako ingurugiroaren arloko puntu beltzak zehaztu zituzten: haize errotak, Urbina-Maltzaga autobidea, Transpapel enpresaren proiektua, Abiadura Handiko Trena. Intsumisioa portadan.

## 59.- 1997ko azaroa

Txabi Arnal lankide ohiak "Donde los días nacen muertos" liburua aurkeztu zigun. Manu anaia gazteenak intsumisio "delitoagatik" kartzelan pasatutako esperientziari buruzko liburua da. Orduan etorri berria zen Sergio Scariolo hobeto ezagutzeko aukera izan genuen elkarrizketaren bitartez.




## 58.- 1997ko urria

Gasteizko katedral zaharraren notiziak izatera ohituta geundenean katedral berriari buruzko liburua aurkeztu zen, ikuspegi berezi eta interesgarri batetik landua gainera, xurrutariak (gargolak) aztertu baitziren. Haurrekin lan egiten duten begiraleen jarduerari buruz gehiago jakiten ere saiatu ginen.




## 60.- 1997ko abendua

Hiru gai nagusi: Pou anaien etorkizunerako asmoak, The Bröntes Gasteizko talderaren estreinako diskoa, "The first", eta Inaxio Lopez de Aranaren azkenengo itzulpen lana, Graham Green-en "Giza faktorea". 5 urte jada.






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa























# ERAKUSKETAK AGUR ESATEN DIO GASTEIZI,

## Araban barna murgiltzeko:

- **LAUDIO** (Martxoak 28 - Apirilak 11)
- **AGURAIN** (Apirilak 14 - Apirilak 27)
- **MAESTU** (Apirilak 30 - Maiatzak 18)
- **ARTZINIEGA** (Maiatzak 21 - Maiatzak 27...)
- **ARAMAIO - IZARRA - ERRIOXA - GOPEGI ...**

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



















# AGUR Arabako Euskal Hotsak





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 61.- 1998ko urtarrila

Olentzerok ikatza utzi zuen UAn (azala), Etnografia eta ahozko kontaketak, Ajuria Eneako Itunaren eragina komunikabideetan (Arabera Kultur Taldea), Araba Durangoko Azokan, Benito Malasangre, Euskarri kirol taldea, Abendaño ikastolako neska arinak, Iñaki Rodaballo, besteak beste.




## 63.- 1998ko martxoa

Kinga Kozurno, euskara ikasi duen poliniarrak Gasteiz, Euskal Herria eta euskarari buruzko bere ikuspegia azaldu zigun. Kulturan, triki-bertsoen emanaldiak aurkeztu eta Obligaciones del Estado taldea ezagutu genuen.







## 62.- 1998ko otsaila

Behin baino gehiagotan agertu da gure aldizkarian Saharako egoera politiko eta soziala; berriro ere saiatu ginen gatazka ulertzen. Arantza Zenarruzabeitia, Kultura zinegotzi ohiari elkarrizketa egin genion eta Iñigo Ortiz de Zaraterekin "The Boogaloos" taldeari buruz aritu ginen.

## 64.- 1998ko apirila

Geu Gasteiz aldizkariaren 3. itxuraldaketa; gainera, kolorezko azalaz agertuko zaigu hemendik aurrera. Iñaki Zorrakin, Arabako Natur Institutuaren kideak bere jarduera eta marrazki erakusketa baten nondik norakoak azaldu zizkigun, eta musika sailean "Ale hop" hip-hop taldea hobeto ezagutzeko parada izan genuen.







## 65.- 1998ko maiatza

Gaztetxeak hamar urte betetzea GEU Gasteiz-en azalean ateratzeko moduko gauza zen. Barruko orrialdeetan gure kaleetan dabilen gero eta lagun multzo handiagoaren bizimodua islatu nahi izan genuen: La Calle-ko saltzaileak. Musika sailean, La Xeta Paxote, lau neska punkzalek eratutako musika taldea.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 66.- 1998ko ekaina




Azala Araba Euskaraz-ek eraman zuen: Armentia Ikastolako haurrek Araiarako gonbitea egin ziguten. Gaztetxeak bizitako 10 urteetako balantzea; erreportajeak "Autogestioaz ametsak gauzatzen" izenburu erakargarria zuen. Bingen Mendizabal eta Juanjo Mena musikagileak gure orrietara berriro. Los Angelesetik bueltan harrapatu genuen lehena eta Estatu Batuak eta Europa osoan lan egiten zegoela, bigarrena.

## 67.- 1998ko uztaila




TMEOk Canaille komisarioaren ale berezi bat atera zuen eta guk haren egile eta asmatzailea ezagutu nahi izan genuen, Mikel Valverde marrazkilaria. Damian Muñoz dantzariak arrakastaren bidean zegoela ekarri genuen gurera, arrakastak Gasteiztik eraman baino lehen.

## 68.- 1998ko abuztua




Abuzturo jaiei ematen diegu gure portada, zeri bestela! Ale honetan, ordea, jai giroari aldarrikapena gehitu behar izan zitzaion: Egin egunkaria eta Egin irratiko lankideei elkartasuna adieraztea ezinbestekoa baitzen komunikabidea itxi eta gero. Arrazoi ezberdinengatik jaiak era berezi batean bizi dituzten Martin Fiz eta Betagarri gure erreportajeen protagonistak izan ziren.

## 69.- 1998ko iraila

Iker Iturbek Baskoniak ez zuela bera fitxatu nahi izan salatu zuen gure azalean. Txema Kapetillo Baskoniako entrenatzaile ohiak, baita Ikerrena ere, horri buruz eta beste zenbait gairi buruz bere iritzia eman zigun. Pedro Portillak Trebiñon bizi duten egoera azaldu eta konponbidearen beharra aldarrikatu zuen, baina ez dirudi entzun ziotenik!




## 70.- 1998ko urria

Hauteskundeetan geunden eta egoera politikoari dagokionez beste garai batzuk ziren. Solasaldi interesgarri bat izan genuen are interesgarriagoa den gizon batekin, Alfonso Sastre. Euskal Herriko gatazka, Egin-en itxiera...; momentuko gai guztiei errepasoa egin zien Sastrek. Txabi Arnal lankide ohi eta lagunak bere azkenengo bi lanak aurkeztu zizkigun.






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 71.- 1998ko azaroa

Ruper Ordorikak "Dabilen harria" lana aurkeztu zigun. Hala Bedi Irratira hurbildu ginen, haziz doan proiektua dela ikusteko (gaurko Hala Bedi zer-nolakoa den aztertzea nahikoa da honetaz jabetzeko). Asier Sagastak Oihulari Klown taldearen aurkezpena egin zigun eta Alvaro Gonzalez de Galdeanok etorkizunerako asmoen berri.







## 72.- 1998ko abendua

1998ko abenduaren 26an 20.000 pertsona baino gehiago bildu ziren Mendizorrotzeko futbol zelaian eta ez zen kirol ikuskizun bat ikusteko izan, Kontseiluaren "Bai Euskarari" kanpainari erantzunez baizik. Ale horretan ekimenaren berri eman genuen, eta Felix Ormazabal diputatu nagusiarekin elkarrizketa ere atera genuen. Gure 6. urtera heldu ginen.

## 73.- 1999ko urtarrila




Legea betez gero Xabier eta Rikardo Izaga, "Kuku" (Gimon) eta Satur Lopez Domaika euskal presoek kalean beharko luketela aldarrikatu zuten zenbait taldek Gasteizko kaleetan. Eneko Etxebarrieta gazte gasteiztarrari elkarrizketa egin genion, baina bera gezurretan aritu zela konturatu gara. Bizikleta hartu eta hamar hilabetez Europa osoa zeharkatzeko asmoa zuela esan zuen... Bi urte pasatuta, Txinan dagoela da jakin dugun azkena!!!

## 74.- 1999ko otsaila

Toki Eder ikastolaren proiektua; Araban txotx egiteko aukera ematen duen Aramaioko Iturrieta sagardotegia; Boogaloos musika taldea; Tinko, zinea euskaraz; eta esku pilota sakonean aztertzen zuen erreportajea. Mikel Goñi-ren fenomenoa aipatzen du lanak; gerora zenbat hitz egin ote da pilotari nafar gazteari buruz?




## 75.- 1999ko martxoa




Korrikari buruz Angel Olalderekin mintzatu ginen; Reina Ruiz, Udaleko berdintasunerako langilearekin emakumearen kezka eta egoeraz; Miguel Prietorekin urte horretarako rally-etan parte hartzeko zituen aukerez eta bere gogoaz; eta Fernando Auzmendirekin txalapartaren inguruan.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 76.- 1999ko apirila




Itxuraldaketa berriz ere! Iban Uriondo musherra bere txakurrarekin agertzen da aldizkariaren azalean. Aurretik ere gure orrialdeetan agertutako The Allnighters taldeari tartetxo bat egin genion, baina oraingoan agur esaten zutela jakinarazteko. Txabi Arnal lankide ohia berriro ere berri baten protagonista, bere "Lanean zein etxean berdin da" lanak sexismoaz gaindiko ipuinen 3. Lehiaketa irabazi zuelako.

## 77.- 1999ko maiatza

Juanito Oiarzabal GEU Gasteiz-en berriro, iragarri bezala 14 zortzimilakoak igo zituela eta. Perun ibilitako Javier Salazar gasteiztarrak hango berri ekarri zigun. Agurtzane Villate marrazkilariak (egun kolaboratzaile) bere lana erakutsi zigun eta Siborik eta Najerak okupatu zituzten kiroletako orrialdeak.







## 79.- 1999ko uztaila

Jean François Sauré Legution bizi den argitaratzaile bretoiak "liburua proiektu kultural baten barruan kokatu behar dela" esan zigun. Orain gurekin kolaboratzen du. Bizikleta hiriko garraiobide gisa aldarrikatzen duen taldeko kideek dituzten zailtasun eta oztopoak kontatu zizkiguten. Ixone Elosegirekin ere egon ginen Europako karate txapelketan domina bat eskuratzeagatik zoriontzeko.




## 78.- 1999ko ekaina

Lapuebla de Labarkara itzuli zen Araba Euskaraz. Katedral zaharraren lanen proiektua ezagutzera jo genuen. Kale izendegi euskalduna zertan zegoen azaldu ziguten Txipi Ormaetxeak eta Iñigo Kastresanak. Juan Vallejorekin goi mailako mendizaletasunaren inguruan hitz egin genuen eta Maider Unda borrokalari gaztea ezagutu genuen.

## 80.- 1999ko abuztua

8.812 ekimenekoekin egon ginen eta etxebizitza izatea guztion eskubidea dela aldarrikatu zuten orrialde hauetatik. Mikel Urdangarinek "Ba dira hiru aste" diskoa aurkeztu zigun, eta... Jaiak berriro ere! Aihotz plazako egitaraua, txosnen esparru alternatiboa, herri kirolak,...






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




## 81.- 1999ko iraila

Eguzkik "Garoña, Gasteizko atarian dugun arriskua" dela esan zigun, zentral nuklearrak 2009. urtera arte lanean jarraitzeko luzapen-baimena eskuratu zuenean. Koldo Zuazo irakasleak "Arabarrak euskararen herrian" liburua aurkeztu zigun eta Hector eta Eneko Llanos triatloilariek Sidney-ra begira entrenatzen zutela aitortu.




## 82.- 1999ko urria

Gasteizko preso politikoen eta Daewoo-ko langileen egoera izan ziren GEU Gasteiz-ko alerik tristeenaren gai nagusiak. Ale honetan agur esan genion 99ko irailean betirako joan zitzaigun Raul Saez de Buruaga lankide eta lagunari. Berak idatzitako ipuin batekin esan genion horrenbeste aldiz berari entzundakoa: Agur Campeon!




## 83.- 1999ko azaroa

Hainbeste polemika sortu duen (eta oraindik ere sortzen dihardituen) Artium museoaren inguruan bertako artistek duten iritzia helarazi nahi izan genizuen. Mane eta Salva Maldonado entrenatzaileak aurrez aurre jarri genituen. PP-UAko Udal Gobernuaren euskararen politika aztertu genuen egondako kritiketatik abiatuta, besteak beste, Encina Serrano PPko Kultur zinegotzia eta Arantza Zenarruzabeitia jeltzalearekin mintzatu ginelarik.

## 84.- 1999ko abendua

Jose Antonio Martinez Mendiluzek, "Historia de la resistencia antifranquista en Alava" liburuaren egileak 36ko gerraren lehenengo urtetako oroitzapenak errekuperatu zituen guretzat, Arabako Biltzar Nagusietan Francoren estatu kolpea kondenatu ala ez eztabaidatu zuten garaian. Gainera, Inaxio Lopez de Aranak, GEUko aspaldiko lagunak bere azken bi itzulpen lanak aurkeztu zizkigun.




## 85.- 2000ko urtarrila

GEU aldizkariaren (hemendik aurrera "Geu" izenarekin eta ez "Geu Gasteiz" momentura arte bezala) irudi berri eta aldaketa nagusia: itxuran eta eduki-egituran. Arabarrok "Euskarari bai!", gai nagusia; bertan Mikel Mintegi EAko kidea, Iñaki Oyarzabal PPko parlamentaria etab.en iritziak bildu genituen. Aldizkariaren eskaintza berri eta aldaketen artean kolaborazio desberdinak aipatu behar dira: esaterako, besteak beste, "Araba bixotzian" saila martxan jarri genuen Mikel Valverde irudigilearen laguntzaz.






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 86.- 2000ko otsaila




Ogeta pilotari ohiarekin hitz egin genuen. Bestetik, Ipurbeltzen berri eskatu genion GEUko kolaboratzailea izan den Miel Anjel Elustondo zuzendariari. Bilbon egin zen Eremu urriko hizkuntzei buruzko nazioarteko bileraren emaitzak ere aztertu genituen...

## 87.- 2000ko martxoa

Gai nagusia: Arabako Aldundiaren aurrekontuak luzatuak egoteak zer esan nahi zuen, zer eragin izango zuen kontu honek... Eten bat suposatzen ote zuen, Aldundiak kulturarentzako diru iturri guztiak zergatik moztu zituen jakin nahi genuen...; kezka zen nagusi gure artean... Besteak beste, Pedro de Sancristoval Kultur diputatua, Iñaki Ullibarri EHko batzarkidea eta EAko koordinatzailea den Manuel Ibarrondorekin mintzatu ginen. Bestetik, egun horietan Daniel Calparsoro zinegilea "Asfalto" filma aurkeztera etorri zen Gasteiza eta gurekin egoteko minutu batzuk atera zituen.







## 88.- 2000ko apirila

Bi elkarrizketa nagusi eta erreportaje bat: lehen elkarrizketan Cosmin Contra futbol jokalariak Alaves Europako bidean zegoela adierazi zigun..., arrazoiaz, ezta?; bigarrenean, Karmele Jaio kazetaria, Berdintasunerako kontaketa laburren irabazlea, hobeto ezagutu genuen. Erreportajean Manuel Iradier kaleko eta Ariznabarrako okupengana hurbildu ginen.




## 89.- 2000ko maiatza

Cannabisa legalizatzeko aldarrikapena ez da berria, baina azken urteotan pil-pilean dago nolabait. Eskariari erantzuteko edo, Gasteizko Errementari kaleko "Ametsak" dendan kalamuz egindako produktuak saltzen dira eta handik pasatu ginen zer eskaintzen duten ikusteko. Bestetik, Diocesanas-Molinuevo eskolako irakasleekin egon ginen Lanbide Heziketan euskarazko lehen urratsak prestatzen ari zirenean. Azkenik, Gasteizko II. Zinemaldia, beste gai batzuen artean (Mikel Telleria, Josu Bravo...).

## 90.- 2000ko ekaina

Evaristo, Aguraingo poeta, izan genuen aleko protagonista. La Polla taldearen "Toda la puta vida igual" aurkeztu zigun. Horretaz gain, Laudioko Araba Euskaraz eta Euskharan-ek martxan jarritako helduentzako D eredua aurkeztu genituen. Kiroletan Julio Salinas-i agur esan genion eta Kulki, euskal kultura eta herri kirolak uztartzen dituen ekimenaren berri eman genuen.






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




## 91.-2000ko uztaila

Gimon, "Kuku", Gasteizko preso politiko ohiarekin egon ginen, kartzelatik atera eta gutxira; bertan bizitakoaren berri eta Euskal Herriko egoerari buruzko bere iritziak eman zizkigun, eta, dirudienez, norbaiti ez zitzaion elkarrizketa gehiegi gustatu... Hortik aurrera arazoak! Bestaldetik ere, Paco San Miguel eskultoreak Egileorren duen etxera hurbildu ginen bere lana hobeto ezagutzeko.

## 92.- 2000ko abuztua

Abuztua. Jaiak. Eta zuek nola bizi dituzuen jakin nahi izan genuen: batzuek lan egitea tokatzen zitzaiela kontatu ziguten; besteren batek, jaietako egunetan banpiro bihurtu eta gauez bakarrik irteten dela aitortu; Alde Zaharreko bizilagunek, jaia 24 orduz etxe azpian izatea zer den; kirolariek egun horietan ere zaindu behar direla...







## 93.- 2000ko iraila

Guay.com, interneteko ate arabarra ezagutzera jo genuen Arabako Parke Teknologikora, eta Zolloraino Ibaizar nekazal-turismoa ikusteko. Lenbur Fundazioak euskal burdingintzaren historia eta errealitatea ikertzeko egiten ari den ahalegina azaldu zigun.




## 94-95.- 2000ko urria-azaroa

Ale bikoitza eta berezi honetan Arabako Foru Aldundiak GEU aldizkariari diru laguntza ukatu zionetik azkenean kopuru bat onartu zuen arte igarotako "beldurrezko" ibilbide guztia kontatu genizuen. Horretaz gain, Mari Carmen Perez de Albeniz, Munaingo gaztagile eta Antonio Karmona, Alaveseko kapitainarekin elkarrizketak izan genituen.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## 96.- 2000ko abendua

Andoni Perez Cuadrado, ABKren partaideak desobedientzia zibilaren balioaz hitz egin zigun, Aguraingo Aniturri institutuko zuzendariak euskararen alde egindako apustua sendotzen ari dela kontatu zigun eta mendizale arabarrekin hitz egin genuen norberaren ibilbidearen eta etorkizunerako asmoen berri jakiteko.




## 97.- 2001eko urtarrila

Andre Mari katedraleko lanetan murgildu ginen eta eliza zaharra "XXI. mendeko katedral bihurtuko dela" esan ziguten; Pittilingorri sex-shop berriaren jabeak sexua normaltasunez tratatu nahi dutela adierazi; eta Ismene Eizmendik, Miss Araba berriak, bere gorputzaren atalik politena begiak direla aitortu.




## 98.- 2001eko otsaila




GEU aldizkariko zuzendariak, Estitxu Breñasek, eta Jabi Otsoa de Aldak -historiagileak biak- egindako "Arabako Euskal Hotsak-Antecedentes del Euskera en Alava" erakusketak hartu zuen gure azala.
TMEOkoek 1987ko San Ferminetan jaiotako aldizkariaren bilakaeraz eta egungo egoeraz hitz egin ziguten eta Lorea Katarainek, pilotazaletik pilotari izateko jauzia eman nahiko lukeela, eta ezin duela kontatu zigun. Eta amaitzeko, Korrika 12rako entrenamendua: Korrika kulturala!

## 99.- 2001eko martxoa

KORRIKA, Korrika, Korrika... 12!
Mundu bat euskarara bildu. Gasteiz-Baiona-Martxoak 29-Apirilak 8... Eta honez gain, behi eroak, Eba Gonzalez de Heredia EHko zinegotzia, Unax Ugalde aktorea eta Iker Foronda zestapuntalaria, besteak beste, ahaztu gabe alerik ale dugun umeentzako txokoa eta Txerokiren nondik norakoak...




**eta 100! Hitzak soberan daude... ZORIONAK GUZTIOI!!!**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# MILA ESKER ZUOI...


GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre),14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

BARRAL
TABERNA
Eguerditan, astelehenetik ostiralera
JANTOKI BEGETARIANOA
SAN FRANTZISKO XABIERKOAREN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.- 945 27 68 33

UDABERRIA
elkartea
• Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
• Musika eskola
• Dantza
Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ

Obren egite eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01
• Material escolar y de oficina
• PAPER BIRZIKLATUA
• FotoKopiak
kolorez eta Zuri-Beltzean
Arte ederretarako... behar duzun guztia
PAPERTEGI TEKNIKOA

ARANBIZKARRA
ZURE AUTOESKOLA!
Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALTASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurrira, hurbila eta saiatua. Horixe duzu gure konpromisoa.

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

NONBAIT

ZURE EUSKAL DENDAK

**Kamisetak:** Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

**Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak**

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

BUZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120

Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

SARTU

JANTZI ETA OPARIAK

Aiztogile kalea (Kutxi), 27

Tfnoa: 945 26 07 10

GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak

Pintore kalea, 17

tfnoa: 945 27 40 09

GASTEIZ

OSKOA!

arropa eta osagarriak

HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38

Quetzal

Hegoamerikako jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko ertzean)

Tfnoa: 945 25 03 52

Confecciones Pinedo

JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ

Tfnoa.: 945 23 39 90

RAFA TEJA ATELIER

"Zetazko eta kotoizko ehunak eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

Argazki - Estudioa

Erramun

Heraclio Fournier, 23 — Tnoa: 13 71 02 — 01006

Askatasun kalea, 5 — Tnoa: 26 19 91 — 01004

vitrales

BEIRATE ESTUDIOA

MIKEL DELIKA

Txikita kalea, 1

Tfno. 945 14 64 10

GASTEIZ

GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDAÑO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA





Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

OLARIZU MENDI
HERRIKO TABERNA
JOSE URUÑUELA KALEAN

# GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

Xabier
taberna
musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

adi
700 apirilari

MERKURIO-KADMIOAN %0a
CEGASA PILAK INDARTSUENAK ETA EKOLOGISTENAK
CEGASA INTERNATIONAL
ALCALINA


CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

ametsak
Kañamo Denda - Grow shop
C/ Herrería nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax.: 945 26 46 43

IBAIZAR
NEKAZALTURISMOA
"Zure ametsak egia bihurtzen diren tokia"
IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net


## GEU etxean jaso nahi dut

geugaste@grn.es

| | |
|---|---|
| Izena | |
| Abizenak | |
| Helbidea | Tfnoa: |
| P.K. Herria | Herrialdea |
| Bankua/Kutxa | Sukurtsala |
| Kontu zk. (20 dijitoak) | Titularra |

Urte osoko harpidetza: 2.000 pezeta. Harpidetza egiteko txartela honako helbidera bidal ezazu:
GEU aldizkaria. Pedro Asua kalea, 2 - 3.a • 01008 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## ZURE HARATEGIAK

*Jose Luis*

**GARMENDIA**



HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

**XABIER AIZPEOLEA**

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97



***gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak***

## Garagardotegia

*Asteburuero IREKITA*

*Gerentzia berria*



*La Blanca*

* Oilasko erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46

Herrandarren kalea, 82 • Gasteiz




altzariak • apaindurak • Florida, 35 – Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



KIDE

APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEI

eusko alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI

gazte abertzaleak
www.gazteabertzaleak.com

ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxa. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua
• Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Bacalao Giraldo

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 · Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

IRUSTA
TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

KA LA MUA
TABERNA
Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5
Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16
01008 Vitoria-Gasteiz



EL BAR Kutxi
eguneko menua

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa
SEX
PITTILIN GORRI




GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel:945 15 42 60
DONOSTIA
OIARTZUN

XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 · GASTEIZ

bar · restaurante · albéniz
Errege atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

HIRUAK
JATETXEA
Aiztogile kalea (Kutxi), 26
tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaitez !!

ZORIONAK eta
URTE ASKOTARAKO,
GEU

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz



MATERIALA
SALGAI

KAMISETAK:
2.000 pta.

TXISKEROAK:
150 pta.

.... Puxikak, Pegatak...

Ateraiozu zukua Euskarari!
eta bere freskotasunetik edan
GEU

Telefonoa:
945 22 21 53

MIKO
izozkiak

DalveZ
argitarazleak
maketazio
diseinua

Diaz de Olano, 22 behea
01008 GASTEIZ
Tel./Faxa: 945 24 52 69
Tfnoa. 652 77 65 09
dalvez@euskalnet.net

EUSKARAZ BIZI TALDEA
euskararako elkartea

euskaltzaleok
geure ziria
luzatu
eta zorroztu!

ZORIONAK GEU!!
AEK aurrera, GEU aurrera

aixkiria euskaltegia Jose Mardones, 8 • tf. 945 26 35 40
amaiur euskaltegia Peru, 8 • tf. 945 21 75 08
arana euskaltegia Arana, 30 • tf. 945 25 24 00
aek




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Apirilaren 8an denok Baionarat, korrika

## EUSKHARAN KULTUR ELKARTEA:

**IKASTAROETARAKO MATRIKULA BERRIA: 2001. 2. HIRUHILEKO MATRIKULA IREKITA*

- **MINTZA-PRAKTIKA** (BERBETAN)-Helduak (5. Urratsetik aurrera): **APIRILA-MAIATZA-EKAINA**. Astearte eta ostegunetan. Kurtso hasiera: Apirilak 3.
- **FORMAKUNTZA IKASTAROAK: INFORMATIKA (oinarrizkoa)**. Asteazkenak-Ostiralak. Kurtso hasiera: Apirilak 3.
- **BERTSOLARITZA**. Ostiraletan. 6 urtetik 8 urtera.

*TXANGOAK

Euskal Herriko herri euskaldunak

(5. Urratsa beharrezkoa da gutixienez.

*Plaza mugatuak)

*__Martxoak 31:__* Ondarru - *__Apirilak 21:__* Zumaia

*__Maiatzak 26:__* Orio - *__Ekainak 23:__* Ea

**INFORMAZIO GEHIAGO: 945 28 82 75**




**GAZTETXEA. 13. URTEURRENA.**

***ZORIONAK!!***

# IKASTAROAK ATZERRIAN

haur, gazte eta helduentzako

**Uda honetan**




**CIM**ek, aurtengo udan, aukera zabala eskaintzen dizu hizkuntzak era atseginean ikasteko.

**INGELESA**
**FRANTSESA**
**ALEMANA**

- Ekintza turistiko eta ludikoekin
- Eta **CIM**ek beti eskaintzen dizun bermearekin
- **Ingeleseko udalekuak Lizarran haurrentzat**

**Donostia-San Sebastián**
Zubieta, 26.
Tel.: 943 43 31 02

**Vitoria-Gasteiz**
Florida, 8A.
Tel.: 945 15 01 55

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

**Arrasate**
Avda. de Álava, 4.
Tel.: 943 71 20 55

**Oñati**
Olakua, 14.
Tel.: 943 71 60 00

**E-mail: secretaria@cim-idiomas.com • http: www.cim-idiomas.com**



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## Gure liburuak

Ikaslearen Liburua: 6. urratsa arte

EGA Ikaslearen Liburuak

Esaera Zuhur eta Zahar

Ttanttaka: 5. urratsera arte

Pedro Mari Erraondo

25 urte Iruñean

ika

# *Zorionak* **GEU**

IKA

11 URTE

EUSKAL HERRIA

EUSKALDUNTZEN

ika

A. Campion - 948 22 22 46 Lesaka - 948 63 77 96

Errioxa - 941 60 10 87 Gasteiz - 945 15 43 41


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

100. zk
2001eko apirila

GEU Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

# ALDIZKARIA 100. ALEA

# ZORIONAK!!

## Ospatu gurekin!!!

## Apirilak 7, larunbata

- **"ATERAIOZU ZUKUA, SÁCALE JUGO" EGUNA**

**Goizez eta gauez**

**Egunez (12:00etatik aurrera):**

- **KULKI taldea** (jolasak Farolon-en)
- **ZIRKO KALEJIRA Sebastopoleko Titiriteroekin** (Erdialdean eta Alde Zaharrean)
- **Informazio gunea...**

**Gauez. Gaztetxean:**

- **ZUKU FESTA** 22:00etatik aurrera:
- **KESENGUE-KESENGUE** taldearen kontzertua (Musika afro-karibetarra)
- **CUBO Dj-a** (Silum Soundz)



Ateraiozu zukua euskarari

¡Sácale jugo al euskera!

Y saborea su frescor

Eta bere freskotasunetik edan

**sartzeko zerbait laranja eraman-llevar algo naranja para entrar**

## eta... SORPRESA ugari!!!

Antolatzaileak: GEU — GEU Gasteiz Euskalduna

Babesleak: Caja Laboral Euskadiko Kutxa; Grupo Cegasa International; Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco; Diputación Foral de Alava Arabako Foru Aldundia

Laguntzaileak: Korrika AEK; Egunkaria; Doal 649.370.509; Hotsak; Sasola; Hala Bedi Irratia; Plisti-Plasta

FUNDACION Caja Vital Kutxa FUNDAZIOA
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa